

# Juan San Martinen

Gutziz argitaratu barria ez izan arren, barrizat jo geinke Juan San Martinek atondu deuskun "Uhin\* Berri" bildumea\*. Atontzaileak dinoanez, garai bakoitzari berea dagokio, ta gure azken garai zaratatsu honek be merezi eban bere oihartzuna\* poesia sailean. Ogei ta bost olerkari gazte dira, bilduma honetan agertzen diranak. San Martinek jarri dituan urte mugak zehatzak dira: 1964 ezkerko agertu diran poemak, ta 1930 baino geroago jaiotako olerkarienak. Dakien danak dakien lez, 1964-ko urte hori jartzen da, hain zuzen be, gizaldi edo belaunaldi barri baten ezaugarri bezala. Urte honetan Arestiren "Harri ta Herri" ta Zeruko Argia-ko "Gazte naiz" orrialdea agertu baitziran\*. Ta euskal adar gazte honek frutuak emon dituanik ezin ukatu. Ez dira, beharbada, danen gustukoak izango; baina euskal literatura arloak (poesiak batez be) artu dauan astindua, nabarmena da. Geroak esango deusku zenbaterainoko arrastoa utziko dauan, Dana dala, azken bost urte honeetako poemagintzeak gerorako seinale berezia lagako dauala uste dogu.

Baina gure literaturazko emoitzak berez oso aberatsak ez badira, euren pobretasunean urriago agertzen jakuz, gehienetan argitaratzailerik aurkitzen ez dabelako. Liburu honetan agertzen diran poema gehienekin, horixe jazoten zan. Batzuek liburuetan argia ikusi baeben be, gehienak aldizkarietan sakabanatuta edo, oraindino okerrago, argitara emon barik egozan. San Martinen lana, utsune hau betetzera etorri jaku.

Ta poeta barri honeek zek batzen ditu? Zer dabe lokarri ezaugarritzat? Idaztankaera, estiloa? Ez horixe. Euren artean gutxienez iru edo lau jokera ezbardin ikusten dira.

## U H I N B E R R I



Halan ta gutziz be, batugarri batzuek ba daukez. Azalari begiratuta, gehienak lehengo poesia-neurri estuetatik iges egin nahi dabela dirudi, bide zabalagoak aurkitu guran edo. Maminari buruz, ostera, gutxi edo asko, gure erriaren oraingo egoerari erantzun jator bat emoten edo bizibeharraren arazo sakonen itaunei ihardesten\* saiatu dirala esango geunke. Horixe da, batez be, batasun itxura bat emoten deusena.

Beharbada, poema gutxiegi dira poeta bakoitzaren baliola ikusteko; ta batzuetan, euren osotasunetik etenda bailegoz lez, borobiltasuna galtzen dabela emoten dabe. Baina ondo dakigu zelango diru eragozpenak eta bestelako arazoak sortzen dituan holako eginbeharrak.

Bestalde, San Martin bera itz-lauz\* be antzeko bilduma bat egiteko dala, atseginez jakin dogu. Izan be, prosa aldetik, azkenengo urte honeetan pausu arrigarriak emon baditugu be (nobelagintzan batez be), oraindik asko aurreratu beharra dogu. Beraz\*, Juanito, zain geratzen gara.

J. ELORTZA